



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

Imanol Zubizarreta Arteche

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

**Resolución 7/2023 ebazpena**

Recurso 21/2022 errekurtsua

AYUDAS TÉCNICAS ARABA SLk kontratazio-arloko errekurtsu berezi bat jarri zuen kontratazio-mahaiaren 2022ko azaroaren 28ko ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez, Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Kabia eta Uliazpi erakunde autonomoen egoitza-zentroak ohez eta osagarritz hornitzeko esparru-akordio bat esleitzeko prozeduratik kanpo utzi zen 3. sortan egin zuen proposamena (X22015 espediente). Errekurtsu horretan, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bilkuran, goian adierazitako kideak bertaratu direla, honako erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por AYUDAS TÉCNICAS ARABA, S.L. contra la resolución de la mesa de contratación de 28 de noviembre de 2022 por la que se excluye su proposición del lote 3 del procedimiento de adjudicación de un acuerdo marco para el suministro de camas y complementos para centros residenciales del Departamento de Políticas Sociales y los organismos autónomos Kabia y Uliazpi (expediente X22015), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** Auzitegi honen erregistro elektronikoa 2022ko abenduaren 20an aurkeztutako idazkiaren bidez, AYUDAS TÉCNICAS ARABA SLk (aurrerantzean, ATA) goiburuan aipatzen den kontratazio-mahaiaren erabakiaren aurka jarritako kontratazio-arloko errekurtsu berezia sartu zen. Errekurtsu hori 21/2022 zenbakiarekin erregistratu zen.

**BIGARRENA.-** Auzitegiak ofizio bat bidali zion Gobernantza Departamentuari, errekurtsuaren kopiarekin, eta espediente eta dagokion txostena eskatu zizkion. Hori guztia 2023ko urtarrilaren 9an sartu zen Auzitegiaren erregistroan.

**HIRUGARRENA.-** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 56.3 artikulua betez (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB)

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 20 de diciembre de 2022 tuvo entrada el recurso especial en materia de contratación interpuesto por AYUDAS TÉCNICAS ARABA, S.L. (en adelante ATA) contra el acuerdo de la mesa de contratación referido en el encabezamiento; recurso que quedó registrado con el número 21/2022.

**SEGUNDO.-** El Tribunal dirigió oficio al Departamento de Gobernanza remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe. Todo lo cual se recibió en el registro del Tribunal el día 9 de enero de 2023

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y



Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora; aurrerantzean, SPKL), 2023ko otsailaren 1ean errekurtsoa GALMÉDICA SL enpresari (aurrerantzean, GALMÉDICA) helarazi zitzaion (3. sortaren esleipendun gisa proposatua), bost egun balioduneko epean alegazioak aurkez zitzen.

Otsailaren 3an Auzitegiaren erregistroan sartu zen idazkiaren bidez aurkeztu zituen, eta bertan errekurtsoa ezesteko eskatu zuen.

2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante LCSP), con fecha 1 de febrero de 2023 se dio traslado del recurso a la empresa GALMÉDICA, S.L. (en adelante GALMÉDICA), propuesta como adjudicataria del lote 3, para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones.

Las presentó mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 3 de febrero, en el que solicita la desestimación del recurso.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### Errekurtsoaren onargarritasuna

#### **LEHENENGOA.- Xedea.**

Errekurtsoa jarri da lizitatzailer bat esparru akordio baten adjudikazio prozeduratik kanpo uzteko erabakiaren aurka (balio zenbatetsia: 3.916.275 euro).

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezi bat aurkez zitekeen, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 b) eta 2 b) apartatuetan.

#### **BIGARRENA.- Eskumena.**

Errekurtso hau ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

#### **HIRUGARRENA.- Epea**

Errekurtsoa SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartuta errekurritutako akordioa 2022ko azaroaren 28an jakinarazi zela.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

#### **PRIMERO.- Objeto.**

El recurso se interpone contra la exclusión de un licitador del procedimiento de adjudicación de un acuerdo marco que tiene un valor estimado de 3.916.275 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 b) y 2 b) del artículo 44 LCSP.

#### **SEGUNDO.- Competencia.**

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

#### **TERCERO.- Plazo.**

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que el acuerdo recurrido fue notificado el día 28 de noviembre de 2022.



## LAUGARRENA.- Legitimazioa.

Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, parte hartu duten lizitazio batetik kanpo uztea aurkaratzen baitu.

### Auziaren mamia

## BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa

Gobernantza Departamentuko foru diputatuaren proposamenez hartutako 2022ko irailaren 7ko erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onetsi egin zuen Gizarte Politiketako Departamentuko eta Kabia eta Uliazpi erakunde autonomoetako egoitza-zentroak ohez eta osagarritz hornitzeko esparru-akordio bat amaitzeko kontratazio-espedita (X22015 espedientea), lau sortatan banatuta: oheak, koltxoia eta burkoak (1. sorta); eskaren aurkako koltxoia motordunak (2. sorta); motorrik gabeko eskaren aurkako koltxoia (3. sorta); eta mahaiak (4. sorta).

Espeditaek barne hartzen du baldintza teknikoaren agiria (aurrerantzean, BTA), non deskribatzen baitira sorta bakoitzean hornitu beharreko artikulua eta ezartzen baitira horien betekizun teknikoak.

3. sortako artikuluetarako, BTAk honako hau ezartzen du:

### **“3. SORTA: ESKAREN AURKAKO KOLTXOIAK, MOTORRIK GABEKOAK**

#### ESKAREN AURKAKO KOLTXOIA, MOTORRIK GABEKOAK, III. GRADURA ARTE.

Eskaren aurkako koltxoia, presioak eragindako ultzerak prebenitzeko eta tratatzeko egokia (III. gradura arte), eskarak izateko arrisku handia duten pazienteentzat. Azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria, suaren aurkako, eta jostura zigilatua eta kremailera babestua dituena. Jasan dezakeen pisua: 140 kg arte. Neurriak:

90 x 190 cm

90 x 200 cm

100/105 x 190 cm

100/105 x 200 cm

## CUARTO.- Legitimación.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugna su exclusión de una licitación a la que ha concurrido.

### Fondo del asunto

## QUINTO.- La actuación recurrida

Por acuerdo de 7 de septiembre de 2022 adoptado a propuesta de la diputada foral del Departamento de Gobernanza, el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación para la conclusión de un acuerdo marco para el suministro de camas y complementos para centros residenciales del Departamento de Políticas Sociales y los organismos autónomos Kabia y Uliazpi (expediente X22015), dividido en cuatro lotes: camas, colchones y almohadas (lote 1); colchones antiescaras con motor (lote 2); colchones antiescaras sin motor (lote 3); y mesillas (lote 4).

El expediente incluye el pliego de condiciones técnicas (en adelante, PPT), en el que se describen los artículos a suministrar en cada uno de los lotes y se establecen sus requisitos técnicos.

Para los artículos del lote 3 el PPT establece lo siguiente:

### **“LOTE Nº 3: COLCHONES ANTI ESCARAS SIN MOTOR**

#### COLCHON ANTI ESCARAS SIN MOTOR HASTA GRADO III

Colchón antiescaras indicado para la prevención y el tratamiento de las úlceras por presión de hasta grado III, pacientes con un riesgo de escaras alto.

Funda extraíble, impermeable, tejido lavable a 90º desinfectable, antialérgico, transpirable, ignífugo, con costuras selladas y con protección de la cremallera. Peso soportado: hasta 140 kg Medidas:

90 x 190 cm

90 x 200 cm

100/105 x 190 cm

100/105 x 200 cm



ESKAREN AURKAKO KOLTZOIA, MOTORRIK GABEKOA, IV. GRADURA ARTE

Eskaren aurkako koltzoia, presioak eragindako ultzerak prebenitzeko eta tratatzeko egokia (IV. gradura arte), eskarak izateko arrisku handia duten pazienteentzat. Azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria, suaren aurkakoa, eta jostura zigitatuak eta kremailera babestua dituena. Jasan dezakeen pisua: 150 kg arte. Neurriak:

90 x 190 cm  
90 x 200 cm  
100/105 x 190 cm  
100/105 x 200 cm.

ESKAREN AURKAKO KOLTZOI HIBRIDOA, MOTORRIK GABEKOA, IV. GRADURA ARTE

Eskaren kontrako koltzoi hibridoa, aire-gelaxkak eta aparra edo antzekoa dituena, presioak eragindako ultzerak prebenitzeko eta tratatzeko gomendatua (IV. gradura arte), eskarak izateko arrisku oso handia duten pazienteentzat. Azal ateragarria, iragazgaitza, 90º-tan garbitu daitekeen ehuna, desinfektagarria, antialergikoa, transpiragarria, suaren aurkakoa, eta jostura zigitatuak eta kremailera babestua dituena. Jasan dezakeen pisua: 250 kg arte. Neurriak:

90 x 190  
90 x 200  
100/105 x 190  
100/105 x 200”.

3. sorta horretarako lau eskaintza aurkeztu ziren, eta horietatik hiru, guztiak GALMÉDICA aurkeztutakoa izan ezik, baztertu egin zituen kontratazio-mahaiak, BTAn eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez zituztela iritzita.

Kontratazio-mahaiak honako arrazoi hauek eman ditu ATA enpresa baztertzeko, balorazio-txosten teknikoko argudioak bere eginda:

«ez ditu betetzen sorta osatzen duten hiru koltxoietarako eskatzen diren zehaztapenak. Ez ditu eskaintzen 90x200 eta 100/105x200 neurriak».

**SEIGARRENA.- Errekurtsoaren zioak**

ATA enpresaren ustez, eskaini dituen eskaren aurkako koltxoiek eskatutako baldintzak betetzen dituzte. Onartzen du koltzoi bakoitzari dagokion fitxa teknikoan koltzoi horien neurri estandarrek (90x190 cm eta 105x190 cm) soilik daudela

COLCHON ANTIESCARAS SIN MOTOR HASTA GRADO IV

Colchón antiescaras indicado para la prevención y el tratamiento de las úlceras por presión de hasta grado IV, pacientes con un riesgo de escaras alto. Funda extraíble, impermeable, tejido lavable a 90º desinfectable, antialérgico, transpirable, ignífugo, con costuras selladas y con protección de la cremallera. Peso soportado: hasta 150 kg

Medidas:  
90 x 190 cm  
90 x 200 cm  
100/105 x 190 cm  
100/105 x 200 cm.

COLCHON ANTIESCARAS HIBRIDO SIN MOTOR HASTA GRADO IV

Colchón antiescaras híbrido de celdas de aire y espuma o similar, indicado para la prevención y el tratamiento de las úlceras por presión de hasta grado IV, pacientes con un riesgo de escaras muy alto. Funda extraíble, impermeable, tejido lavable a 90º desinfectable, antialérgico, transpirable, ignífugo, con costuras selladas y con protección de la cremallera. Peso soportado: hasta 250 kg

Medidas:  
90 x 190  
90 x 200  
100/105 x 190  
100/105 x 200”.

Para este lote 3 se presentaron cuatro ofertas, tres de las cuales, todas menos la presentada por GALMÉDICA, fueron excluidas por la mesa de contratación por considerar que no cumplen las condiciones técnicas exigidas en el PPT.

Los motivos expresados por la mesa de contratación para excluir a la empresa ATA, haciendo suyos los argumentos del informe técnico de valoración, son los siguientes:

“no cumple las especificaciones exigidas para los tres colchones que componen el lote. No oferta las medidas de 90x200 y 100/105x200.”

**SEXTO.- Los motivos del recurso**

La empresa ATA considera que los colchones antiescaras ofertados sí cumplen las condiciones exigidas. Reconoce que en la ficha técnica correspondiente a cada colchón sólo aparecen expresamente especificadas las medidas estándar



berariaz zehaztuta, baina adierazten du fitxak berak beste neurri batzuk ere aipatzen dituela, ohar espezifikiko baten bidez, eta, bertan, zehazki, esaldi hau adierazten da: «*beste neurri batzuk, kontsultatu*».

Onartzen du Administrazio Klausula Partikularren Agiriko (aurrerantzean AKPA) ezaugarri koadroko 18.1 puntuak enpresak nahikoa informazio ematera behartzen dituela: “*Baldintza teknikoan agirian adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar beste informazio eman behar dute enpresek beren eskaintzan (katalogoa do elementuaren fitxa teknikoa)*”. AKPAk orobat esaten du: “*Egiaztatzen ez diren ezaugarriak ez betetzat joko dira, eta Aldundia ez da behartuta egongo haiek betetzeari buruzko argibideak eskatzera*”. Alabaina, argudiatzen du kontratazio-mahaiak argitzeko eskaera bat egin zezakeela, horretarako ahalmena duenez gero.

Erantsi du aurkeztutako dokumentazioak sobera betetzen duela AKPA-n adjudikazio-irizpideak baloratzeko eskatzen dena (1. Ergonomia; 2. Fabrikazio-kalitatea; 3. Ingurumen-irizpideak), eta irizpide horietan ez direla aipatzen oheen neurriak.

Azkenik, alegatu du eskaintzan proposatutako materiala GALMÉDICA enpresak eskaintutako bera dela, eta haren eskaintza onartu egin dela.

Errekurtsoaren eskaeran, eskatzen du kontratazio-mahaiaren ebazpena baliogabetzat jotzeko.

### **ZAZPIGARRENA.- kontratatzailearen posizioa.**

Gobernantza Sailaren jarrera, kontratazio espedientearen arduraduna, Zerbitzu Orokorretako buruaren txostenean azaltzen da.

Txosten honek AKPAren ezaugarrien taulako 18.1 puntuko azken paragrafoan xedatutakoa aipatzen du, eta honako hau ezartzen du:

de estos colchones, que son 90x190 cm y 105x190 cm, pero alega que la propia ficha también se refiere a la existencia de otras medidas mediante una advertencia específica en la que se indica exactamente la siguiente frase: “*\*otras medidas, consultar*”.

Asume que el punto 18.1 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares (en adelante, PCAP) obliga a las empresas a aportar en su oferta “*información suficiente (catálogo o ficha técnica del elemento) para verificar el cumplimiento de los requisitos indicados en el pliego de prescripciones técnicas*”, y que, asimismo, establece que “*los requisitos cuyo cumplimiento no se acredite se darán por no cumplidos, sin que la Diputación esté obligada a solicitar aclaración sobre su cumplimiento*”; pero entiende que se podría haber hecho una solicitud de aclaración por parte de la mesa de contratación, ya que tenía potestad para hacerlo.

Añade que la documentación que han aportado cumple sobradamente con lo exigido en el PCAP para valorar los criterios de adjudicación (1. Ergonomía; 2. Calidad de fabricación; 3. Criterios medioambientales) y que en dichos criterios no se hace mención a las medidas de las camas.

Alega, por último, que el material propuesto en su oferta es el mismo ofertado por la empresa GALMÉDICA, cuya oferta ha sido admitida.

En el *petitum* del recurso solicita que se declare nula la resolución de la mesa de contratación.

### **Erakunde SÉPTIMO.- Posición de la entidad contratante.**

La postura del Departamento de Gobernanza, responsable del expediente de contratación, se expone en el informe de la Jefa de Servicios Generales.

Este informe alude a lo dispuesto en el último párrafo del punto 18.1 del cuadro de características del PCAP, que establece lo siguiente:



«Baldintza teknikoen agirian adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar beste informazio eman behar dute enpresek beren eskaintzan (katalogoa edo elementuaren fitxa teknikoa). Egiaztatzen ez diren ezaugarriak ez betetzat joko dira, eta Aldundia ez da behartuta egongo haiek betetzeari buruzko argibideak eskatzera».

Premisa horretatik abiatuta, txostenak errekurtsogilearen alegazioei erantzuten die jarraian labur-labur azalduko diren argudioekin.

ATA enpresak eskaintako koltxoiek BTAn jasotako dimentsio guztiak barne hartzen zituzten egiaztatzeko kontsulta argigarri bat egiteko aukerari dagokionez, txostenak uste du AKPAk argi eta garbi ezartzen duela enpresari dagokiola beharrezkoa den eta nahikoa den informazioa aurkeztea eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta Aldundiak ez duela azalpenak eskatu betebeharririk.

AKPAko balio-judizioen mendeko adjudikazio-irizpideei buruzko apartatuan koltxoiak eskuratzeko eskatzen diren neurriak ez betetzeari dagokionez, txostenak SPKLren 300. artikuluan xedatutakoa aipatzen du; horren arabera, kontratistak hornigaiak kontratuan ezarritako denboran eta lekuan entregatu beharko ditu, preskripzio teknikoen eta administrazio-klausulen arabera.

AKPAren ezaugarri-taulako 18.1 puntuan xedatutakoa azpimarratu du, eta ondorioztatu du eskaintzak BTA eta AKPA bete behar dituela. Uste du okerra dela ondorioztatzea balio-iritziaren pean jarritako adjudikazio-irizpideak baloratzeko behar den dokumentazioa aurkezteak berekin dakarrela baldintza-agirietan eskatzen diren baldintzak betetzea.

Azkenik, baieztatzen du ezen, material bera izan arren, enpresa baten eskaintzaren akatsak ezin direla konpondu beste batek –kasu honetan GALMÉDICAk– fitxa tekniko bat aurkeztu

*"Las empresas deberán aportar en su oferta información suficiente (catálogo o ficha técnica del elemento) para verificar el cumplimiento de los requisitos indicados en el pliego de prescripciones técnicas. Aquellos requisitos cuyo cumplimiento no se acredite se darán por no cumplidos, sin que la Diputación esté obligada a solicitar aclaración sobre su cumplimiento."*

Partiendo de esta premisa, el informe responde a las alegaciones de la recurrente con argumentos que se exponen a continuación de forma resumida.

En relación con la posibilidad de realizar una consulta aclaratoria con el fin de verificar si los colchones ofertados por la empresa ATA incluían todas las dimensiones contempladas en el PPT, el informe estima que el PCAP establece con claridad que corresponde a la empresa presentar la información necesaria y suficiente para acreditar el cumplimiento de los requisitos exigidos, sin que exista la obligación de Diputación de solicitar aclaraciones.

En cuanto a la omisión de las medidas exigidas para los colchones en el apartado del PCAP referido a los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor, el informe alude a lo dispuesto en el artículo 300 de la LCSP, según el cual *"el contratista estará obligado a entregar los bienes objeto de suministro en el tiempo y lugar fijados en el contrato y de conformidad con las prescripciones técnicas y cláusulas administrativas"*.

Insiste en lo dispuesto en el punto 18.1 del cuadro de características del PCAP y concluye que la oferta debe cumplir tanto el PPT como el PCAP. Considera erróneo deducir que presentar la documentación necesaria para valorar los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor implica el cumplimiento de los requisitos exigidos en los pliegos.

Por último, afirma que, aun tratándose del mismo material, las deficiencias en la oferta de una empresa no pueden quedar subsanadas por el hecho de que otra –en este caso GALMÉDICA– haya



duelako non adierazten baita eskaintako koltxoiek eskatutako neurriak betetzen dituztela. Ondorioztatzen du, azken batean, ATA enpresak ez duela bere eskaintzan informazio nahikorik ematen BTAn eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

### **ZORTZIGARRENA.- enpresaren alegazioak.**

GALMÉDICA enpresak, hasteko, adierazi du BTAk neurri zehatz eta argiak ezartzen dituela, inolako zalantzarik eta eztabaidarik ez dutenak eta inolako argibiderik behar ez dutenak (90x190 cm; 90x200 cm; 100/105x190 cm eta 100/105x200 cm).

Adierazi du nahikoa dela errekurtsogileak aurkeztutako eskaintzaren fitxa teknikoa aztertzea bertan sartu dituzten koltxoiek sorta osatzen duten hiru koltxoietarako eskatutako zehaztapenak betetzen ez dituztela egiaztatzeko, ez baitira eskaintzen 90x200 eta 100/105x200 cm-ko neurriko koltxoiak.

Eskaintzan berariaz jasotakoez bestelako neurriei buruz kontsultatzeko aukerari dagokionez, interpretatzen du administrazioak BTAn agertzen direnez bestelako neurrien koltxoiak beharko balitu, hornidura gehigarriaren aukera azter lezakeela, baina administrazioak berariaz eskatutakoa ez da betetzen eta ATA enpresak ez du eskaintzen.

Adierazi du auzitegiek kontratazioaren arloan emandako ebazpenak argiak direla, eta, beraz, eskaintzaileak ez badio zehatz-mehatz heltzen eskatutakoari, eta ez baditu sartzen eskaintzan eta fitxa teknikoan produktuak administrazioak eskatzen dituen bezala, lizitaziotik kanpo utzi behar dela. Berariaz aipatzen du Galiziako Kontratuen Administrazio Auzitegiaren 2021eko urtarrilaren 27ko Ebazpena.

presentado una ficha técnica en la que se indica que los colchones ofertados cumplen las medidas solicitadas. Concluye, en definitiva, que la empresa ATA no aporta en su oferta información suficiente para verificar el cumplimiento de los requisitos exigidos en el PPT.

### **OCTAVO.- Alegaciones de la empresa GALMÉDICA.**

La empresa GALMÉDICA comienza señalando que el PPT establece unas medidas concretas y claras que no ofrecen ningún tipo de duda, discusión, ni necesidad de aclaración (90x190 cm; 90x200 cm; 100/105x190 cm y 100/105x200 cm).

Señala que basta con examinar la ficha técnica de la oferta presentada por la recurrente para comprobar que los colchones incluidos en ella no cumplen las especificaciones exigidas para los tres colchones que componen el lote, porque no se ofertan los colchones de medidas 90x200 y 100/105x200 cm.

En cuanto a la posibilidad de consultar sobre otras medidas diferentes a las expresamente incluidas en la oferta, interpreta que si la administración necesitase colchones de medidas distintas a las que figuran en el PPT podría estudiar la posibilidad de suministro adicional, pero lo expresamente solicitado por la administración no se cumple, ni es ofertado por la empresa ATA.

Afirma que las resoluciones de los tribunales en materia de contratación son claras en este sentido, de tal forma que si el ofertante no se acoge escrupulosamente a lo demandado y no incluye en la oferta y en la ficha técnica los productos tal y como los exige la administración, procede la exclusión de la licitación. Alude específicamente a la Resolución del Tribunal Administrativo Contractual de Galicia de fecha del 27 de enero de 2021.



**BEDERATZIGARRENA.- Epaimahaiaren iritziak.** **NOVENO.- Apreciaciones del Tribunal.**

Aldez aurretik gogorarazi behar da, SPKLren 220.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, esparru akordioak egiteko, lege honen bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 1. eta 2. ataletan ezarritako prozedura arauari jarraituko zaiela, zeinak administrazio publikoen kontratuak prestatzeari eta adjudikatzeari buruzkoak diren.

Kasu honetan, ATA enpresak jarritako errekurtsuak aurkaratu egiten du kontratazio-mahaiaren erabakia, haren eskaintza prozeduratik kanpo uzten duena; baztertzeko hori BTAK eskatutako eskakizun teknikoak ez betetzean oinarritzen da.

Aurkeztutako produktuen baldintza teknikoak PTPra egokitzen diren aztertzerakoan, epaimahaiak bi premisa hartu behar ditu abiapuntutzat.

Horietako lehenak zirikusia du SPKLren 28.1 artikuluan xedatutakoarekin, zeinaren arabera «*zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso behar da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik*».

Lege-agindu horrek irakurketa bikoitza eskaintzen du. Alde batetik, kontratazio-organoari esleitzen dio hornigai diren produktuen ezaugarri teknikoak finkatzea, eta, otsailaren 11ko 4/2022 Ebazpenean adierazi genuen bezala, «*ezin dira erlatibizatu, ezta alde batera utzi ere, eta kontratua ezin zaio esleitu haiek betetzen ez dituen eskaintza bati*». Aurreko baieztapenaren ifrentzuan ikusten da, halaber, kontratazio-organoak zehatz-mehatz zehaztu behar dituela kontratuaren bidez eskuratu nahi diren prestazioen edo produktuen baldintza teknikoak.

Con carácter previo, es preciso recordar que, de acuerdo con lo establecido en el artículo 220.1 de la LCSP, para la celebración de un acuerdo marco deben seguirse las normas de procedimiento establecidas en las Secciones 1.ª y 2.ª del Capítulo I del Título I del Libro Segundo de la Ley, referidas, respectivamente, a la preparación y a la adjudicación de los contratos de las Administraciones Públicas.

En este caso, el recurso interpuesto por la empresa ATA impugna la decisión de la mesa de contratación por la cual su oferta es excluida del procedimiento; exclusión que se funda en el incumplimiento de los requerimientos técnicos exigidos por el PPT.

A la hora de analizar la adecuación al PPT de las condiciones técnicas de los productos presentados este Tribunal debe partir de dos premisas previas.

La primera de ellas tiene que ver con lo dispuesto en el artículo 28.1 LCSP, según el cual “*la naturaleza y extensión de las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado, así como la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, cuando se adjudique por un procedimiento abierto, restringido o negociado sin publicidad, deben ser determinadas con precisión, dejando constancia de ello en la documentación preparatoria, antes de iniciar el procedimiento encaminado a su adjudicación*”.

Este mandato legal ofrece una doble lectura. Por un lado, atribuye al órgano de contratación la fijación de las características técnicas de los productos objeto de suministro y, como señalamos en nuestra resolución 4/2022 de 11 de febrero, “*no cabe relativizarlas, ni obviarlas, ni adjudicar el contrato a una oferta que las incumple*”. En el reverso de la anterior afirmación se percibe también la obligación del órgano de contratación de determinar con precisión las condiciones técnicas de las prestaciones o productos que se pretenden adquirir a través del contrato.



Epaimahai honek errekurtsoan planteatutako gaiari aurre egiteko kontuan hartu behar duen bigarren premisa lotuta dago kontratazio publikoa arautzen duten printzipioak behar bezala aplikatzearekin. Ikuspegi horretatik, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta lehia askearen printzipioak ez dira printzipio erretoriko hutsak; aitzitik, kontratazio-prozeduretan inplikaturik dauden guztien jarduketa eta erabakiak bideratu behar dituzte, eta arreta berezia jarri behar dute kontratazio-mahaiaren jardueran, organo tekniko gisa, Legeak eskaintzak baloratzeko eginkizuna esleitzen baitio. Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralaren (aurrerantzean, KEAAZ) arabera, mahaiak bermatu behar du betetzen direla, arauak ez ezik, kontratazio publikoa arautzen duten printzipioak ere, bereziki berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta lehia askeari buruzkoak, eta AKPAk interpretatu behar ditu printzipio horiek benetan gauzatu daitezkeen, eta, beharrezkoa izanez gero, klausulen interpretazioa aipatutako doktrinara egokitu behar du (575/2021 ebazpena).

Kasu honetan, kontratazio-mahaiak ATA enpresaren eskaintza baztertu zuen uste zuelako 2. artxiboan aurkeztutako fitxa teknikoak ez zituela eskaren aurkako koltxoiak eskaintzen BTAn zehaztutako dimentsio guztietan. ATA enpresak aurkeztutako fitxa teknikoa Hiper Foalm Plus Clinic koltxoi-modeloari buruzkoa da, eta neurriei buruzko atalean 90x190x14cm eta 105x190x14cm neurriak soilik jasotzen ditu berariaz, eta jarraian «beste neurri batzuetarako, kontsultatu» adierazpena gehitzen du.

Errekurtsogileak uste du fitxa teknikoan azaldutakoak aukera ematen duela beste koltxoi-neurri batzuk sartzeko, eta, horretarako, Administrazioak argibide bat eska zezakeela. Era berean, garrantzitsutzat jotzen du balio-judizioaren mende jarritako adjudikazio-irizpideen deskribapenean neurriak berariaz sartu beharra ez aipatzea, eta, azkenik, baieztatzen du bere eskaintzaren koltxoiak eta azkenean onartzen den

La segunda premisa que este Tribunal ha de tener en cuenta para afrontar las cuestiones planteadas en el recurso tiene que ver con la correcta aplicación de los principios que rigen la contratación pública. Desde esta perspectiva, los principios de igualdad, no discriminación y libre concurrencia no constituyen meros principios retóricos, sino que han de orientar la actuación y las decisiones de todos los implicados en los procedimientos de contratación, con especial incidencia en la actuación de la mesa de contratación, como órgano de carácter técnico al que la Ley atribuye la función de valorar las ofertas. En términos del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (en adelante, TACRC) *“la mesa debe garantizar el cumplimiento, no sólo de las normas, sino también de los principios que rigen la contratación pública, singularmente los de igualdad, no discriminación y libre concurrencia, así como interpretar los PCAP del modo que esos principios tengan realización efectiva, ajustando, si así fuere necesario, la interpretación de sus cláusulas a la referida doctrina”* (resolución 575/2021).

En el presente caso, la mesa de contratación excluyó la oferta de la empresa ATA por considerar que la ficha técnica presentada en el archivo nº 2 no ofrecía los colchones antiescaras en todas las dimensiones especificadas en el PPT. La ficha técnica presentada por la empresa ATA se refiere al modelo de colchón Hiper Foalm Plus Clinic, y en el apartado referido a las dimensiones únicamente recoge de forma expresa las medidas de 90x190x14cm y 105x190x14cm, y añade a continuación la expresión *“otras medidas, consultar”*.

La recurrente considera que lo expuesto en la ficha técnica permite incorporar otras medidas de colchón, para lo cual la Administración podría haber solicitado una aclaración. También considera relevante que en la descripción de los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor no se mencione la necesidad de incluir expresamente las medidas y, en último término, afirma que los colchones de su oferta y los ofertados por la única



empresa bakarrak eskaintakoak fabrikatzaile beretik datozela, hau da, produktu bera dela.

Bada, maiatzaren 26ko 9/2022 Ebazpenean, auzitegi honek argitu du, KEAAZen finkatutako doktrinatik abiatuta (denen erakusgarri, azaroaren 12ko 1610/2021 Ebazpena), ezen, SPKLren 139.1 artikulua xedatzen duenean, alde batetik, proposamenak baldintza-agirietara egokitu beharko direla, eta, bestetik, horiek aurkezteak klausulen edo baldintzen baldintzarik gabeko onarpena dakarrela, eta horrek eskaintza horiek baldintza-agirietara egokitzearen eta, beraz, haien baliozkotasunaren aldeko presuntzioa ezartzen du. Ebazpen horretan bertan baieztatzen da, halaber, lizitatzailerik bat BTatik kanpo uzteko, eskaintzan jasotako deskribapen teknikoak ez betetzeak berariazkoa eta argia izan behar duela; egoera hori, orduan ohartarazi zen bezala, ez da soilik eskaintzan adierazitakoa preskripzio teknikoaren aurka dagoenean gertatzen, baizik eta, oro har, ez-betetzea modu objektiboan eta ukaezinean egiazta daitekeenean. Doktrina horrek ezartzen du, azken batean, kontratazio-organismoek ezin dutela eskatu proposamenek baldintza-agirian aurreikusitako preskripzio tekniko guzti-guztiak berariaz eta zehatz-mehatz jasotzea, baizik eta behar diren deskribapen teknikoak soilik, mahaiak baloratu ahal izan dezan eskaintzak kontratuaren xedea betetzeari egokitzen zaizkion.

Arrazoibide hori errekurtso honetara ekarrita, ikusten da ATA enpresak aurkeztutako koltxoien fitxa teknikoan BTAn eskatzen diren lau neurrietatik bi soilik jasotzen direla berariaz, baina ez du baztertzen eskatutako beste bi dimentsioetako koltxoia, bera, hornitzeko aukera, eta beste neurri batzuk ere onartzen ditu. Aurretik azaldutakoaren arabera, kontratazio-mahaiak eskaintzaren baliozkotasun-presuntzioa hartu behar du abiapuntutzat, eta, kasu honetan, presuntzio horrek, fitxa teknikoan beste dimentsio batzuk sartzeko erabilitako formularekin batera, ATA enpresak aurkeztutako eskaintza baliozkotzat jotzea ahalbidetzen du.

empresa finalmente admitida proceden del mismo fabricante, esto es, se trata del mismo producto.

Pues bien, en su resolución 9/2022 de 26 de mayo este Tribunal ha aclarado, partiendo de la doctrina asentada en el TACRC (por todas resoluciones 1610/2021, de 12 de noviembre) que cuando el artículo 139.1 LCSP dispone, por un lado, que las proposiciones deberán ajustarse a los pliegos y, por otro lado, que su presentación supone la aceptación incondicionada de sus cláusulas o condiciones, lo que establece es una presunción en favor de que esas ofertas se ajustan a los pliegos y, por tanto, de su validez. En esa misma resolución también se afirma que para proceder a la exclusión de un licitador el incumplimiento del PPT por la descripción técnica contenida en su oferta ha de ser expreso y claro; situación que, como entonces se advertía, ocurre no sólo cuando lo declarado en la oferta se oponga abiertamente a las prescripciones técnicas, sino, en general, cuando el incumplimiento pueda ser constatado de manera objetiva e irrefutable. Esta doctrina establece, en definitiva, que no puede exigirse por los órganos de contratación que las proposiciones recojan expresa y exhaustivamente todas y cada una de las prescripciones técnicas previstas en el pliego, sino exclusivamente aquellas descripciones técnicas que sean necesarias para que la mesa pueda valorar la adecuación de las ofertas al cumplimiento del objeto del contrato.

Trasladando este razonamiento al presente recurso, se observa que la ficha técnica de los colchones presentada por la empresa ATA recoge de forma expresa sólo dos de las cuatro medidas requeridas en el PPT, pero no excluye la posibilidad de suministrar el mismo colchón en las otras dos dimensiones requeridas, e incluso admite la existencia de otras medidas. De acuerdo con lo anteriormente expuesto, la mesa de contratación debe partir de la presunción de validez de la oferta y, en este caso, esa presunción, unida a la fórmula utilizada en la ficha técnica para incluir otras dimensiones, permite dar por válida la oferta presentada por la empresa ATA.



Esan bezala, fitxak ez ditu berariaz jasotzen eskatutako neurrietako bi, baina enpresak emandako informazioa nahikoa da balio-iriztiaren mende jarritako adjudikazio-irizpideak baloratzeko. Ez da beharrezkotzat jotzen enpresari kontsulta egitea, baina ez da eragozpenik ikusten kontratazio-mahaiak gai hori baieztatzeke, ez bailitzateke eskaintza aldatzea edo handitzea izango, baizik eta argitze huts bat, lizitazioari berari mesede egingo liokeena.

Kontratazio-mahaiak AKPAren ezaugarrien taulako 18.1 puntuan ezarritakoaren arabera justifikatzen du baztertea, baina Auzitegi honek ez du egokitzen jotzen interpretazio hori; izan ere, nahiz eta eskaintza aurkezteko zorrotasuna arrazoizkoa izan printzipio orokor gisa, eskakizun hori ezin da eraman interpretatzeraino produktu baten ezaugarriak deskribatzeko moduan edo idazketan dagoen edozein desberdintasunek berekin dakarrela eskaintza automatikoki baztertea.

Alde batetik, AKPAko ezaugarri-taulako 18.1 puntuan xedatutakoak ezin duelako baztertu kontratazio publikoan oro har agintzen duen printzipio antiformalista aplikatzea, zeina lehia-printzipioa eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatzeko printzipioa uztartzen saiatzen baita. Ildo horretan, Auzitegi Gorenak 2015eko maiatzaren 25eko epaian adierazten du (322/2014 kasazio-errekurtsoa): *“una interpretación literalista de las condiciones exigidas para tomar parte en los procedimientos administrativos de contratación, y un excesivo formalismo que conduzca a la no admisión de proposiciones por simples defectos formales, fácilmente subsanables, es contrario a los principios que deben regir la contratación pública enunciados en el artículo 1 del TRLCSP, la libertad de concurrencia y la eficiente utilización de los fondos públicos, que exigen que en los procedimientos de adjudicación de los contratos deba tenderse a lograr la mayor concurrencia posible, siempre que los candidatos cumplan los requisitos establecidos”*.

Errekurtso hau ebazteko elementu erabakigarria ez bada ere, ezin da garrantzirik gabekotzat jo 3. sorta

Aunque, como decimos, la ficha no incluya expresamente dos de las medidas exigidas, la información facilitada por la empresa es suficiente para valorar los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor. No se considera necesario tener que consultar con la empresa, aunque tampoco se observa impedimento alguno para confirmar esta cuestión por parte de la mesa de contratación, ya que no constituiría una modificación o ampliación de la oferta, sino una simple aclaración que redundaría en beneficio de la propia licitación.

La mesa de contratación justifica la exclusión en atención a lo establecido en el punto 18.1 del cuadro de características del PCAP, pero este Tribunal no considera acertada esta interpretación puesto que, si bien el rigor en la presentación de la oferta resulta razonable como principio general, esta exigencia no puede ser llevada hasta el punto de interpretar que cualquier diferencia en la redacción o en la forma de describir las características de un producto conlleve la exclusión automática de la oferta.

Por un lado, porque lo dispuesto en el punto 18.1 del cuadro de características del PCAP no puede excluir la aplicación del principio antiformalista que rige con carácter general en la contratación pública, y que trata de conjugar el principio de concurrencia y el de selección de la oferta económicamente más ventajosa. En este sentido, el Tribunal Supremo señala en su sentencia de 25 de mayo de 2015 (recurso de casación 322/2014) que *“una interpretación literalista de las condiciones exigidas para tomar parte en los procedimientos administrativos de contratación, y un excesivo formalismo que conduzca a la no admisión de proposiciones por simples defectos formales, fácilmente subsanables, es contrario a los principios que deben regir la contratación pública enunciados en el artículo 1 del TRLCSP, la libertad de concurrencia y la eficiente utilización de los fondos públicos, que exigen que en los procedimientos de adjudicación de los contratos deba tenderse a lograr la mayor concurrencia posible, siempre que los candidatos cumplan los requisitos establecidos”*.

Aunque no constituya un elemento determinante para la resolución de este recurso, tampoco puede



horretarako jasotako lau eskaintzetatik bat baino ez dela onartu kontratazio-mahaiaren hitzez hitzeko interpretazio murriztaileegiaren ondorioz.

Bestalde, errekurtsoari buruzko txostenak 18.1 puntu hori aipatzen du eskaintzak baloratzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko eragozpen gisa. Alabaina, ez du kontuan hartzen AKPAk berak, 29. klausulan, diola: *“eskaintza aurkeztuei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkiete lizitatzailerei, edo eskaintzen erredakzioko akats material agerikoak zuzentzeko esan, betiere tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuta eta eskaintzen baldintzak aldatzeko inolako aukerarik eman gabe”*.

Azken batean, ATA enpresak aurkeztutako eskaintzan jasotako eskaren aurkako koltxoien fitxa teknikoak eskaintza behar bezala baloratzeko behar diren datuak biltzen ditu, eta, nahiz eta fitxa horrek ez dituen berariaz jasotzen BTAn eskatzen diren dimentsio guztiak, seguruenik fitxa estandarra delako eta ez delako berariaz erantzuten Administrazioak kasu honetan eskatzen dituen beharrei, pentsatu behar da eskaintza aurkeztean konpromisoa hartzen duela esparru-akordioaren xede diren produktuak BTAk eskatzen dituen eskakizun tekniko guztiekin hornitzeko.

Ez da kontuan hartu behar, ezta ere, Galiziako Kontratuen Administrazio Auzitegiaren 2021eko urtarrilaren 27ko Ebazpenari buruz adierazitakoa. Errekurtsoaren xedea kontuan hartuta, uste dugu enpresak, egiaz, aipatutako kontratu-errekurtsoen organoaren urtarrilaren 29ko 23/2021 Ebazpena aipatzen duela, zeinak bere erabakia oinarritzen du pleguetan eskatutakoaren eta enpresak eskaintutakoaren arteko berariazko kontraesan batean. Kasu honetan, ez dago halako kontraesanik.

Beraz, baliogabetu egin behar dugu ATA enpresak esparru-akordioaren 3. sortarako aurkeztutako eskaintza baztertu zuen kontratazio-mahaiaren ebazpena.

considerarse irrelevante que, como consecuencia de la interpretación literal y excesivamente restrictiva de la mesa de contratación, de las cuatro ofertas recibidas para este lote 3 solo una ha sido admitida.

Por otro lado, el informe acerca del recurso se refiere a ese punto 18.1 como un impedimento para poder aclarar las dudas que pueden surgir durante la valoración de las ofertas. Sin embargo, no tiene en cuenta que el propio PCAP, en su cláusula 29, permite a la mesa de contratación *“solicitar a las licitadoras aclaraciones sobre las ofertas presentadas o si hubieren de corregir manifiestos errores materiales en la redacción de las mismas, siempre que se respete el principio de igualdad de trato y sin que puedan, en ningún caso, modificarse los términos de las ofertas”*.

En definitiva, la ficha técnica de los colchones antiescaras incluida en la oferta presentada por la empresa ATA contiene los datos necesarios para valorar correctamente la oferta y, aunque esa ficha no recoge de forma expresa todas las dimensiones exigidas en el PPT, debido seguramente a que se trata de una ficha estándar que no responde específicamente a las necesidades requeridas en este caso por la Administración, debe presumirse que, al presentar su oferta, asume el compromiso de suministrar los productos objeto del acuerdo marco con todos los requerimientos técnicos exigidos por el PPT.

Tampoco cabe atender a lo señalado en relación con la Resolución del Tribunal Administrativo Contractual de Galicia de fecha del 27 de enero de 2021. Dado el objeto del recurso, suponemos que la empresa se remite en realidad a la resolución 23/2021, de 29 de enero, del citado órgano de recursos contractuales; resolución que funda su decisión en una contradicción expresa entre lo exigido en los pliegos y lo ofertado por la empresa. En este caso, no existe tal contradicción.

Por tanto, hemos de anular la resolución de la mesa de contratación que excluyó la oferta presentada por la empresa ATA para el lote 3 del acuerdo marco.



Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### ERABAKITZEN DU

### ACUERDA

**LEHENA.-** Baiestea AYUDAS TÉCNICAS ARABA SLk jarritako kontratazio-arloko errekurtsu berezia, eta baliogabetzea kontratazio-mahaiaren 2022ko azaroaren 28ko erabakia, zeinaren bidez haren eskaintza baztertu baitzen esparru-akordioaren 3. sortako lizitaziotik, Gizarte Politiketako Departamentuko eta Kabia eta Uliazpi erakunde autonomoen egoitza-zentroak ohez eta osagarritz hornitzeko (X22015 espedientea).

**PRIMERO.-** Estimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por AYUDAS TÉCNICAS ARABA, S.L. y anular el acuerdo de la mesa de contratación de 28 de noviembre de 2022 que excluyó su oferta de la licitación del lote 3 del acuerdo marco para el suministro de camas y complementos para centros residenciales del Departamento de Políticas Sociales y los organismos autónomos Kabia y Uliazpi (expediente X22015).

**BIGARRENA.-** Prozeduraren atzeraeragina agintzea, kontratazio-mahaiak eskaintzen beste balorazio bat egin dezan, balio-iritzien mende jarritako adjudikazio-irizpideak aplikatuz, eta balorazio horretan AYUDAS TÉCNICAS ARABA SL eta GALMÉDICA SL enpresek aurkeztutako eskaintzak sartzeko.

**SEGUNDO.-** Ordenar la retroacción del procedimiento para que la mesa de contratación efectúe una nueva valoración de las ofertas aplicando los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor, e incluyendo en esa valoración las ofertas presentadas por las empresas AYUDAS TÉCNICAS ARABA, S.L. y GALMÉDICA, S.L.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2023ko martxoaren 15a / San Sebastián, 15 de marzo de 2023.**